

IPUINA

PILOTA GORRI BATEKIN

Ekiñek pilota gorri bat dauka. Pilota gorriarekin jolastea gustatzen zaio Ekiñeri. Horregatik, gaur ere kalera atera da, pilota gorriarekin jolastera. Tipi-tapa tipi-tapa, auzoko pilotalekura abiatu da Ekiñe. Bote-boteka darama pilota gorria. Eta, halako batean... ihes egin dio pilota gorriak! Punpa-punpa-punpa, ihesi doa pilota gorria. Korrika abiatu da atzetik Ekiñe, baina bera baino bizkorragoa izan da Bibi, bizilagunaren txakurra.

- Zaunk-zaunk-zaunk – Bibi Ekiñerengana hurbildu da, trakatan-trakatan, korrika, pilota gorria ahoan duela. Ekiñeren oinetan utzi du pilota gorria. Bibik jolasteko gogoa izaten du beti. Eta Ekiñeri gustatzen zaio zakur iletsu alai horrekin jolastea.

- Goazen frontoira, Bibi -esan dio Ekiñek txakurrari, eta pilota gorria bata besteari pasatuz, elkarrekin abiatu dira pilotalekura.

Pilotalekura iritsi direnean, Ihitz ikusi du Ekiñek. Ihitz bere laguna da. Baita Bibirena ere. Ekiñek oso ongi pasatzen du Ihitzekin elkartzen denean. Poztu egin da Ihitz ere pilotalekuan dagoelako. Hiru izango dira pilota gorriarekin jolasteko!

- Ihitz! Ihitz! -dei egin dio Ekiñek.
- Norena da Bibik ahoan duen pilota gorria? – galdetu du Ihitzek.
- Nirea! Nire betiko pilota gorria da! Nahi al duzu gurekin jolastu?
- Ados!

Hamaika jolas asmatu dituzte pilota gorriarekin. Imajinatu dute pilota gorria suzkoa dela eta erre egiten duela, eskupilotan aritu dira, baita Bibi bezela lau hankatan makurtuta bata besteari pasatzen.

- Hara, Joxe Mari badoa etxera, erosketak eginda – esan du Ihitzek.

- Joxe Mari! Joxe Mari! -dei egin dio Ekiñek Joxe Mariri. Joxe Mari da herriko alaiena, Ekiñeren ustez. Beti dago umore onez, beti dago bromarako gogoz.

- Ihitz, Ekiñe! – agurra bueltatu die bi haurrei Joxe Marik.

- Joxe Mari, hartu pilota gorria!
Ihitzek airean bota dion pilota hartu du Joxe Marik. Bibi saiatu da jauzi egin eta pilota hartzen, baina azkarragoa izan da Joxe Mari.

- Zer zabilzate pilota gorri batekin?
- Jolasten – erantzun diote Ekiñek eta Ihitzek.
- Zaunk-zaunk-zaunk! -erantzun dio Bibik ere.
- Begira zertarako balio duen pilota gorri batek! – eta sudur gainean jarri du Joxe Marik; pailazo sudur-gorri baten antza hartu du! Kar-kar-kar! Barre egin dute Ekiñek eta Ihitzek. Joxe Mari beti pailazokeriatan! Beti umoretsu!
- Kuttuna duzu pilota gorria, e, Ekiñe? – esan dio Joxe Marik -. Beti horrekin ikusten zaitut jolasten! Burua gora eta behera mugitu du Ekiñek. Egia da, egunero eramaten du pilota gorria berarekin Ekiñek.

Motxilan ikastolara, aiton-amonei bisita egiten dienean, jolasgaraian...

- Arrazoia du Joxe Marik, Ekiñe. Beti daramazu zurekin! Zergatik? -galdetu dio Ihitzek.
- Pilota gorria hitzak bezalako da niretzat. Hitzik gabe, ezingo nuke hitz egin. Pilota gorria gabe, ezingo nuke jolastu! Munduko gauzarik dibertigarriena da pilota gorria!